IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)
Foruen Plaza, z/g
31860 Irurtzun

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)
Plaza de los Fueros, s/n
31860 (Irurtzun)

# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita biko otsailaren 22an, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ez - ohiko bilkura egitearren, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 22 de febrero de dos mil veintidós se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los siguientes Concejales y Concejalas:*

Joseba Royo García jauna.
Agurtzane Garijo Peralta andrea.
Naiara Gartzia Royo andrea.
Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna.
Ana Santander Lizaso andrea.
Ana Balda San Juan andrea.
Luis Enrique de la Calle Moreno jauna.
Domingo Goñi Sarasola jauna.

*Don Joseba Royo García.*
*Doña Agurtzane Garijo Peralta.*
*Doña Naiara Gartzia Royo.*
*Don Antonio Ollakarizketa Elizondo.*
*Doña Ana Santander Lizaso.*
*Doña Ana Balda San Juan.*
*Don Luis Enrique de la Calle Moreno.*
*Don Domingo Goñi Sarasola.*

Ezin etorria adierazi dute Eduardo Murugarren Frances jaunak eta Enrique Tenorio Ruiz jaunak.

*Excusan su asistencia Don Eduardo Murugarren Francés y Don Enrique Tenorio Ruiz.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19’32an eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19’32 horas.*

Ezarritako gai - zerrendari ekin aurretik, alkateak azaldu du premiazko puntua sartzeko beharra dagoela,

*Previamente a entrar en el orden del día establecido, el Alcalde expone la necesidad de introducir un punto*

nitxoak betiko emateko iraupenari buruz. Presazkoa da ordenantza fiskalak eta hilerrikoak bat ez datozelako; beraz, behar bezala aplikatzeko, komeni da gai hori argitzea.

*de urgencia, relativo a la duración de la concesión de los nichos a perpetuidad. Su urgencia radica en una discordancia entre las ordenanzas fiscales y la del cementerio, por lo que para la correcta aplicación, conviene dilucidar esta cuestión.*

Puntua presazkoa dela bozkatu da, eta aho batez onartu da.

*Se vota la urgencia, que es aprobada por unanimidad.*

**1.- 2021ko azaroaren 30ean ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 30 de noviembre de 2021.***

2021eko azaroaren 30eko ezohiko osoko bilkuraren akta eztabaidatu eta bozkatu da, eta aho batez onartu da.

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión del pleno extraordinario del día 30 de noviembre de 2021, que queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2021/296-tik 2022/18 ebazpenera.**

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 296/2021 hasta la 18/2022.***

Udalbatza 2021/296 ebazpenetik 2022/18 bitarteko ebazpenez jakitun geratu da.

*El Pleno se da por enterado de las resoluciones 296/2021 a 18/2022.*

**3.- Alkatetzaren 2022/18 Ebazpenaren berrespena, hala badagokio. Honen bidez, Irurtzungo Udala Nafarroako Mendiaren partaidetzazko toki - garapenerako 2023-2027 estrategian atxikitzen da, Cederna Garalur tokiko ekintza taldearekin.**

***3.- Ratificación, si procede, de la Resolución de Alcaldía 18/2022, por la que se adhiere al Ayuntamiento de Irurtzun a la Estrategia de Desarrollo Local Participativo de la montaña de Navarra 2023-2027 con el Grupo de Acción Local Cederna Garalur.***

Alkateak azaldu du ebazpen horren bidez Udala 2023 eta 2027 bitarte emango den Landa Garapeneko Planaren bigarren faseari atxiki zaiola. Ekimen horren bidez, Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldeak Europako laguntzak kudeatuko lituzke, hau da, Leader

*El Alcalde explica que se trata de una resolución por la que el Ayuntaminto se adhiere al Plan de Desarollo Rural, segunda fase, de 2023 a 2027. Se trata de una iniciativa por la que el Grupo de Acción Local Cederna Garalur gestionaría las ayudas europeas recibidas,*

Funtsa. Horretarako, Irurtzungo Udalak atxikitu egin behar du.

*Fondo Leader, para lo cual el Ayuntamiento de Irurtzun debe adherise.*

Hitzen txanda irekita, ez da halakorik egon, eta, beraz, bozkatu egin da. Horrela, **Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez hala erabakita, honakoa erabaki du:**

*Abierto el turno de palabras, no las ha habido, por lo que se ha procedido a votar. Así,* ***el Pleno de la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, acuerda:***

LEHENENGOA.- Alkatetzaren 2022/18 ebazpena berrestea, eta, beraz, Nafarroako Mendialdeko Partehartzerako Toki Garapenerako 2023 - 2027 Estrategiari atxikitzea, Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldearekin.

*PRIMERO.- Ratificar la resolución de alcaldia 18/2022 y, por tanto, adherirse a la Estrategia de Desarrollo Local Participativo de la Montañade Navarra 2023 - 2027 con el Grupo de Acción Local Cederna Garalur.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Cederna Garalurri jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a Cederna Garalur, para su conocimiento y efectos.*

**4.- 2022ko aurrekontuaren eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***4.- Aprobación inicial del presupuesto y de lkas Bases de Ejecución para el ejercicio 2022, si procede.***

Alkateak azaldu du Aurrekontua Gauzatzeko Arauak direla gero aurrekontua aplikatzeko argibideak jasotzen dituen araua.

*El Alcalde explica que las Bases de Ejecución del Presupuesto son la norma que recoge las indicaciones con las que posteriormente aplicar el Presupuesto.*

Idazkaritzari galdetuta, aurreko ekitaldiko oinarriekiko aldaketa gutxi dituela gaineratu du, izan ere, Kontuhartzailetzak Oinarriak aldatu ohi ditu aplikatzekoa den Foru Arauak eta, bereziki, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak dituen aldaketen arabera.

*Preguntada a Secretaría, añade que tiene pocas variaciones respecto a las Bases del ejercicio anterior, ya que Intervención suele modificar las Bases en función de las variaciones que experimente la Norma Foral de aplicación, y en particular la Ley Foral de Haciendas Locales.*

Jarraian, alkateak Kontuhartzailetzak 2022ko aurrekontuari buruz emandako txostena azaldu du. Aurrkontuaren zenbatekoa nabarmendu du (2.910.000 euro), baita ekitaldi honetan ere gastuari eta finantza -

*Seguidamente, el Alcalde expone el informe emitido por Intervención acerca del Presupuesto de 2022. El Alcalde destaca la cuantía del presupuesto, que asciende a 2.910.000 euros, así como el hecho de que*

egonkortasunari buruzko arauak aplikatu behar ez direla ere; horiek 2020an pandemiak eztanda egin zuenetik ez dira aplikatu behar. Txostenean, udal kontuhartzailetzak ondorioztatu du aurkeztutako aurrekontua legezkoa dela eta, beraz, Udalbatzak onartua izan daitekeela.

*este ejercicio tampoco resulten de aplicación la regla de gasto ni la de estabilidad financiera, que vienen no siendo de aplicación desde que estallara la pandemia en 2020. En el informe, el Interventor Municipal concluye que el presupuesto presentado se ajusta a la legalidad y que, por tanto, es susceptible de ser aprobado por el Pleno.*

Aurrekontuaren edukiari dagokionez, alkateak, lehenik eta behin, aurreko ekitaldietako aurrekontuekiko berrikuntzak zehaztu ditu:

*En cuanto al fondo del presupuesto, el Alcalde, en primer lugar, procede a detallar las novedades respecto a los presupuestos de ejercicios anteriores:*

- Sahiesbidearen eraikuntzak egungo NA-7010 errepidea udalaren titulartasunekoa izatea ekarriko du, eta, beraz, udalerrirako beste mugikortasun mota bat ezartzeko aukera aztertzen hastea komeni da. Horri buruzko proposamen tekniko bat egingo da, zeinaren inguruan, ondoren, parte - hartze prozesu bat egingo baiten. Proiektu hau gauzatzeko 15.000 euroko partida ezartzen da.

*- La creación de la variante conllevará que la actual carretera NA-7010 pase a ser de titularidad municipal, por lo que es procedente comenzar a pensar en la posibilidad de establecer otro tipo de movilidad para el municipio. Se realizará una propuesta técnica sobre ello, que será posteriormente sometida a un proceso participativo. Se establece una partida de 15.000 euros para este proyecto.*

- Energia - eraginkortasunari buruz Nasuvinsarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, eraikin publikoen berroneratzea hauspotu nahi da, besteak beste, Irurtzungo bizilagunek arlo horretan dauden diru - laguntzen inguruan erraztasunak eta ehunekoetan hobekuntzak izan ditzaten.

*- Mediante el convenio sobre eficiencia energética suscrito con Nasuvinsa se pretende sustentar la regeneración en edificios públicos, entre otras cosas, buscando que los y las vecinas de Irurtzun tengan facilidades y mejoras en los porcentajes de subvenciones existentes en este área.*

- 2020-2021. urteetan etxebizitzari buruz egindako inkestatik familia bakarreko etxebizitzetarako lurzorua behar zela ondorioztatu zen. Horretarako, S1 - U3 eta S1 - U4 unitateak urbanizatzeko partida sartu da aurrekontuetan.

*- A raíz de la encuesta sobre vivienda realizada en 202-2021, se concluyó la necesidad de suelo para vivienda unifamiliar. Para ello, se introduce en presupuestos una partida para la urbanización de las unidades S1- U3 y S1 - U4.*

- Kulturgune bat eraikitzeko proiektua, alde batetik, Kultur Etxearen eta Musika Eskolaren irisgarritasuna hobetzeko eta, bestetik, herriko erdigunera ekartzeko,

*- Proyecto para la construcción de un auditorio, con el doble objetivo de mejorar la accesibilidad tanto de la Casa de Cultura como de la Escuela de Música, por un*

bi hauek baitira Irurtzungo biztanleek gehien erabiltzen dituzten zerbitzuetako bi. Ekitaldi honetan, egin beharreko proiektua lizitatuko da, eta, horretarako, 45.000 euroko partida bat gorde da, gutxi gorabehera eraikinaren eraikuntzak izango duen balioaren %8a dela estimatzen dena.

*lado, y de acercarlas al centro del municipio, por el otro, por ser ambos dos de los servicios más utilizados por la población de Irurtzun. Este ejercicio se licitará el proyecto a realizar, para lo que se ha reservado una partida de 45.000 euros, que es, aproximadamente, el 8% de lo que se estima que valdrá la construcción del edificio.*

- Herri - baratzeen proiektuan parte hartzea, arlo soziala eta ingurumenekoa baliarazteko helburua duena. Udal - lurzatietan 90 m² inguruko 37 baratze eraikiko dira, eremu komunak eta 30.000 litroko biltegiak izango dituztenak, azken hauek udal - igerilekuetatik soberan geratzen den urarekin beteko direnak. Proiektu honen bidez, Arakileko Udalak bertako haziei buruz abian jarritako proiektuaren antzeko proiektu bat bultzatu nahi da, eskolari lagungarri izango zaiona eta belaunaldien arteko espazio izango dena. Proiektu honen egikaritzarako 35.000 euroko partida bat gorde da.

*- Participación en un proyecto de Huertas Comunales, por el que se pretende hacer valer tanto lo social como lo medioambiental. Se trata de la construcción de 37 huertas de unos 90 m² en parcelas municipales, que contarán con zonas comunes y depósitos de 30.000 litros que se rellenarán con el agua sobrante de las piscinas municipales. Mediante este proyecto, se quiere impulsar un proyecto similar al puesto en marcha por el Ayuntamiento de Arakil sobre semillas autóctonas, servir de apoyo a la escuela y ser un espacio intergeneracional. Para este proyecto se ha reservado una partida de 35.000 euros.*

- Egun lantzen ari den kultura arteko diagnostikotik ondorioztatzen diren neurrietan parte hartzea.

*- Participar de las medidas que se concluyan del diagnóstico intercultural en el que se está actualmente trabajando.*

- Gizarte Zerbitzuek kudeatzen dituzten larrialdietarako laguntzak mantentzen dira.

*- Se mantienen las ayudas de emergencia gestionadas por los Servicios Sociales.*

- Itza eta Basaburuako haur - eskolekin egindako hitzarmenei aurre egiteko kontu partida handitu egin da. Hitzarmen horien bidez, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur - eskoletara joateagatik familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen ordenantzan jasotako laguntzak betetzen dira, neurri batean.

*- Se aumenta la partida para hacer frente a los convenios con las Escuelas Infantiles de Iza y Basaburua, por los que se da en parte cumplimiento a las ayudas reguladas en la Ordenanza reguladora de las ayudas a la vida familiar y laboral por la asistencia de niños y niñas de 0 a 3 años a escuelas infantiles.*

- Iazko ekitaldian Inasa enpresarekin lotutako 12

*- Tras haber entrevistado el ejercicio pasado a 12*

pertsona elkarrizketatu ondoren, ekitaldi honetan ikus - entzunezko batean jaso nahi da Inasak Irurtzunentzat suposatutako ondaren immateriala, bai gizartean, bai lanean, baita hirigintzan ere.

*personas relacionadas con la empresa Inasa, este ejercicio se pretende recoger en un audiovisual el patrimonio inmaterial que refleje lo supuesto por Inasa para Irurtzun, tanto en el ámbito social, como en el laboral o en el urbanístico.*

- Amaitu berri den aurrekontu - partehartzehartzaileen prozesuan irabazle suertatu den proiektua gauzatzeko gerakinetik 70.000 euro erabiltzeko konpromisoa hartzen da.

*- Se adquiere el compromiso de destinar 70.000 euros del remanente a la ejecución del proyecto que haya resultado vencedor en el proceso de presupuestos participativos recién finalizado.*

- Hilerriko obrak, horma hobetzeko.

*- Obras en el cementerio para la mejora de los muros.*

- Iturtxokoko parkea hobetzeko obrak.

*- Obras de mejora en el parque de Iturtxoko.*

- Atakondoa ikastetxeko Haur Hezkuntzako pasabideak hobetzeko obrak.

*- Obras de mejora de los pasillos de Educación Infantil en el Colegio Atakondoa.*

- Iazkoa baino partida txikiagoarekin, baina tokiko merkataritza sustatzeko partida mantentzen da, emaitza udalerriarentzat positiboa izan dela baloratzen baita.

*- Con partida inferior a la del año pasado, pero se manitene la partida destinada al fomento del comercio local, ya que se valora que ha resultado positiva para el municipio.*

- Plazaola Partzuergo Turistikoa garatzeko konpromisoarekin jarraitzea.

*- Continuar con el compromiso de desarrollo del Consorcio Turístico Plazaola.*

Aurrekoaz gain, beste programa batzuk aipatzen ditu, hala nola ingurumena, gazteria, eraldaketa digitala, berdintasuna eta kirolak. Alta, nabarmentzen ditu, Iturraskarrirekin eta Enplegu Sozial Babestuarekin egiten diren kontratazioak, lankidetza - proiektuetarako laguntzak mantentzea, derrigorrezkoa ez den hezkuntzako eskola - garraioko zerbitzua eta zerbitzu hori behar duten erabiltzaileei ematen zaien laguntza, kulturan handitutako partida, erakundeei eta kirol - jarduerei ematen zaizkien diru - laguntzak.

*Además, reseña otros programas como el de medioambiente, juventud, transformación digital, igualdad y deportes. Destaca las contrataciones que se llevan a cabo con Iturraskarri y el Empleo Social Protegido, la mantención de las ayudas a los proyectos de cooperación, el servicio de transporte escolar de la educación no obligatoria y la ayuda que se les da a las personas usuarias de este servicio que así lo requieran, la partida ampliada en cultura, las subvenciones a entidades y a actividades deportivas.*

Enrique de la Calle jaunak esan du ez aurrekontuei

*Don Enrique de la Calle interviene diciendo que los*

inolako osoko zuzenketarik egitea egokia ez dela, ez eta zuzenketa partzialik ere, baina aurkeztutako proiektuarekin desadostasunen bat dutenez, bera bozeramale den udal taldea abstenitu egingo dela iragarri du.

*Presupuestos no dan lugar a una enmienda a la totalidad, ni tampoco a una parcial, pero que debido a alguna desavenencia con el proyecto presentado, el Grupo Municipal en el que ejerce de portavoz se va a abstener.*

Hitzen txanda itxita, gaia bozkagai jarri da. Lehenik eta behin, Aurrekontua Betearazteko Oinarriak bozkatu dira. **Udalbatzak, aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Cerrado el turno de palabras, se somete el asunto a votación. Se procede a votar, en primer lugar, las Bases de Ejecución del Presupuesto.* ***El Pleno, por unanimidad, acuerda****:*

LEHENENGOA.- 2022ko urteko Aurrekontua Gauzatzeko Arauak onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar las Bases de Ejecución del Presupuesto para el ejercicio 2022.*

Jarraian, Aurrekontua jarri da bozkagai. Udalbatzak, **bilkuran dauden EH Bilduko sei hautetsien aldeko botoekin eta bertaratutako Navarra +ko bi hautetsien abstentzioarekin**, honako akordioa hartu du:

*A continuación, se somete a votación el Presupuesto. La Corporación, con los* ***votos a favor de los y las seis ediles de EH Bildu presentes en la sesión y la abstención de los dos ediles de Navarra + presentes****, adopta el siguiente acuerdo:*

BIGARRENA.- 2022. urterako aurrekontua hasiera batez onestea.

*SEGUNDO.- Aprobar inicialmente el Presupuesto para el ejercicio 2022.*

**Bertaratutakoek aho batez** honako akordioak hartu dituzte:

*Se adoptan* ***por unanimidad de las personas presentes*** *los siguientes acuerdos:*

HIRUGARRENA.- Honako akordioak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki oholean argitaratzea.

*TERCERO.- Dar publicidad a estos acuerdos en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal*

LAUGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluari jarraituz, onetsitako aurrekontua ikusgai egonen da, 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aztertzeko aukera izan dezaten; behin betikoz

*CUARTO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, el expediente se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen*

onetsitzat joko da, epe horretan inork ez badu erreklamaziorik aurkezten.

*pertinentes, entendiéndose aprobado definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

**5.- 2022rako ordenantza fiskaletan HLBGZren egokitzea, hala badagokio.**

***5.- Adecuación de los coeficientes del IIVTNU en las ordenanzas fiscales para 2022, si procede.***

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legean xedatutakoa ikusirik, alkateak azaldu du gainbalioa izenez ezagutzen den zerga bi koefizienteren arabera kalkulatzen dela: batetik, ondasuna erosi eta besterendu arteko urteen araberakoa, eta, bestetik, finkatutako koefiziente finkoa. Kasu honetan, egokitu beharreko koefizientea lehenengoa da.

*Visto lo dispuesto en la Ley Foral 19 /2021, 29 de diciembre, de modificación de diversos impuestos y otras medidas tributarias, el Alcalde explica que el impuesto conocido como Plusvalía se calcula en base a dos coeficientes, que son, por un lado, el establecido en función de los años de transcurso entre la adquisición y la enajenación del bien y, por el otro, un coeficiente estipulado fijo. En este caso, el coeficiente que se debe adecuar es el primero.*

Ez da hitza hartzeko eskubidea erabili, eta, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*No se ha hecho uso del derecho a la toma de palabra, y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluko gehienezko koefizienteak onartzea. Hauek izango dira:

*PRIMERO.- Aprobar los coeficientes máximos del artículo 175 de la Ley Foral 2/ 1995, de 10 de marzo, de las Haciendas Locales de Navarra, que serán los siguientes:*

| | SORTZAPEN EPEA |
|---|---|
| 0,45 | 20 urte edo gehiago |
| 0,20 | 19 urte |
| 0,18 | 18 urte |
| 0,06 | 17 urte |
| 0,06 | 16 urte |
| 0,06 | 15 urte |
| 0,06 | 14 urte |

| | *PERÍODO DE GENERACIÓN* |
|---|---|
| *0,45* | *Igual o superior a 20 años* |
| *0,20* | *19 años* |
| *0,18* | *18 años* |
| *0,06* | *17 años* |
| *0,06* | *16 años* |
| *0,06* | *15 años* |
| *0,06* | *14 años* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 0,06 | 13 urte | *0,06* | *13 años* |
| 0,06 | 12 urte | *0,06* | *12 años* |
| 0,06 | 11 urte | *0,06* | *11 años* |
| 0,06 | 10 urte | *0,06* | *10 años* |
| 0,06 | 9 urte | *0,06* | *9 años* |
| 0,11 | 8 urte | *0,11* | *8 años* |
| 0,18 | 7 urte | *0,18* | *7 años* |
| 0,33 | 6 urte | *0,33* | *6 años* |
| 0,33 | 5 urte | *0,33* | *5 años* |
| 0,26 | 4 urte | *0,26* | *4 años* |
| 0,18 | 3 urte | *0,18* | *3 años* |
| 0,11 | 2 urte | *0,11* | *2 años* |
| 0,06 | Urte 1 | *0,06* | *1 año* |
| 0,06 | Urte 1 baino gutxiago | *0,06* | *Inferior a 1 año* |

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, behar den ondorioak izan ditzan.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra a los efectos oportunos.*

**6.- Plantillako soldaten eguneratzea, hala badagokio: %1’75eko igoera Garbiketa Hitzarmena aplikatu behar zaien langileei eta %2a gainerakoei.**

***6.- Actualización salarial de la plantilla, si procede: 1’75% al personal al que le resulta de aplicación el Convenio de la Limpieza y 2% al resto.***

Alkateak azaldu du Irurtzungo Udaleko langileei administrazioaren araudia aplikatzen zaiela, Garbiketa Zerbitzuko pertsona bati izan ezik, horri Garbiketa Hitzarmena aplikatzen baitzaio.

*El Alcalde expone que al personal al servicio del Ayuntamiento de Irurtzun se le aplica la normativa de la administración, salvo a una persona del Servicio Municipal de Limpieza, que se le aplica el Convenio de la Limpieza.*

Nafarroako Gobernuak erabakitako igoerak gauzatu ahal izateko, hau da, %1'75eko soldata - igoera Garbiketaren Hitzarmena aplikatzen zaion pertsonari

*Para poder ejecutar la subida salarial del 1’75% a la persona a la que se le aplica el Convenio de la Limpieza y del 2% al resto del personal decidida por*

eta %2koa gainerako langileei, aipatu igoera Osoko Bilkuran onartu behar da.

*Gobierno de Navarra, es necesario aprobar la misma en Pleno.*

Azalpenak amaituta, eta bestelako hitzartzerik izan ez denez, **Udalbatzak, aho batez, erabaki du:**

*Terminadas las explicaciones y sin que se tomen más palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- %1,75eko soldata - igoera onartzea Garbiketa Hitzarmenari atxikitako langileentzat, eta %2koa administrazio publikoaren araudiari atxikitako langileentzat. Igoera hori otsaileko nominarekin batera ordaintzen hasiko da, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

*PRIMERO.- Aprobar un incremento salarial del 1'75% al personal adscrito al Convenio de la Limpieza y del 2% al personal adscrito a la normativa de la administración pública que se empezará a abonar junto con la nómina de febrero y que tendrá efectos desde el 1 de enero de 2022.*

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udal Kontuhartzailetzari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención Municipal para su conocimiento y efectos.*

**7.- 0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur - eskoletara joateagatik familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen bigarren deialdiaren irekiera, hala badagokio.**

***7.- Apertura de la segunda convocatoria de las ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral por la asistencia de niños/as de 0 a 3 años a escuelas infantiles, si procede.***

Alkateak gogorarazi du, laguntza horiek arautzen dituen ordenantzarekin bat etorriz, urtero bi aldiz irekitzen dela deialdia (irailean eta urtarrilean), kintako haur guztien familiek laguntza horiek eskuratzeko aukera izan dezaten.

*El Alcalde recuerda que, de conformidad con la ordenanza reguladora de estas ayudas, cada año se abre la convocatoria dos veces (septiembre y enero), para que las familias de todos los niños y niñas de la quinta puedan acceder a las mismas.*

Ez da hitzartzerik egon eta, behin proposamena bozkagai jarrita, **Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:**

*No se han tomado palabras. Sometida la propuesta a votación, **se adopta, por unanimidad, el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen bigarren deialdia irekitzea onartzea, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur - eskoletara joateagatik.

*PRIMERO.- Aprobar la apertura de la segunda convocatoria de las ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral por la asistencia de niños/as de 0 a 3 años a escuelas infantiles.*

BIGARRENA.- Honako akordioa Irurtzungo Udaleko kontuhartzailetzari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la Intervención del Ayuntamiento de Irurtzun.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa interesdunei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*TERCERO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas para su conocimiento y efectos.*

**8.- Atakondoa ikastetxe publikoko igogailuaren konponketa / egokitzapen lanak bai eta Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxe mistoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra - proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako diru - laguntzen deialdiaren oinarriak berrestea, hala badagokio.**

***8.- Aprobación de la obra para la reparación / adecuación del ascensor del Colegio Público Atakondoa, así como de las Bases de la convocatoria de subvenciones a los ayuntamientos y concejos de la Comunidad Foral de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación de centros públicos de 2º ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria - ESO, si procede.***

Alkateak esan du, Batzordean azaldu zen bezala, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxe mistoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra - proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateak ematen dituen diru - laguntzen eskaera aurkeztuta dagoela.

*El Alcalde dice que, tal y como se explicó en Comisión, la solicitud de la subvención que concede el Gobierno de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación de centros públicos de 2º ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria - ESO ya está presentada.*

Aurten Atakondoa ikastetxe publikoko igogailua egokitzeko eskatu da, egiturazko akatsak dituela ikusi baita.

*Este año se ha solicitado para la adecuación del ascensor del Colegio Público Atakondoa, ya que se ha detectado que tiene deficiencias estructurales.*

Hala ere, laguntza horiek lortu ahal izateko, Udalbatzak egokitzapen - proiektua zein hari erantsitako aurrekontua eta deialdiaren oinarriak onartzea beharrezkoa da.

*No obstante, para la obtención de dichas ayudas, es necesario que el Pleno apruebe tanto el proyecto de adecuación, como el presupuesto anexo al mismo y las bases de la convocatoria.*

Hitz – txanda irekitzean, halakorik izan ez denez, zuzenean bozketara jo da. **Udalbatzak, aho batez,**

*Abierto el turno de palabras, no las ha habido, por lo que se procede directamente a la votación.* ***El Pleno,***

**honako akordioa hartu du:**

LEHENENGOA.- Atakondoa Ikastetxe Publikoko igogailuaren egokitzapenetarako lanei buruzko proiektua onartzea, BEZ kanpo utzita 21.735,00 eurokoa eta BEZ barne hartuta 26.299,35 eurokoa dena.

BIGARRENA.- Konpromisoa hartzea Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikastetxe publikoen eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoen hobekuntza- eta birmoldaketa - obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udalei eta kontzejuei diru - laguntzak emateko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzeko.

HIRUGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea.

***por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar el proyecto para las obras de adecuación del ascensor del Colegio Público Atakondoa, cuyo gasto asciende a 21.735,00 euros IVA excluido y 26.299,35 euros IVA incluido.*

*SEGUNDO.- Comprometerse al cumplimiento de los requisitos exigidos por las bases de la convocatoria de subvenciones a los Ayuntamientos y Concejos de la Comunidad Foral de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación, de centros públicos de 2º Ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria – ESO.*

*TERCERO.- Notificar este acuerdo al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra..*

**9.- Genero indarkeriaren arloan neurri alternatiboen programarekin lankidetzan ez aritzeko akordioa , hala badagokio.**

***9.- Acuerdo de no colaboración con el programa de medidas alternativas en materia de violencia de género, si procede.***

Alkateak azaldu du Irurtzungo Udalak zenbait zigor komunitatearen aldeko lanak eginez betetzeko neurri alternatiboen programan parte hartzen duela. Alta, duela gutxi antzeman da zigor horietako batzuk genero - indarkeriako delituei buruzkoak direla.

*El Alcalde explica que el Ayuntamiento de Irurtzun viene participando del programa de medidas alternativas para el cumplimiento de determinadas penas de Trabajos en Beneficio de la Comunidad. Sin embargo, recientemente se ha advertido que algunas de estas penas son relativas a delitos de Violencia de Género.*

Hori dela eta, akordio honen bidez Irurtzungo Udala berdintasunaren arloan garatzen ari den lan - ildoarekin bat etorriz, genero - indarkeriaren alorrean neurri alternatiboen programarekin lankidetzan aritzea

*Debido a ello, y de conformidad con la línea de trabajo que el Ayuntamiento de Irurtzun viene desarrollando en materia de igualdad, mediante este acuerdo se pretende evitar la colaboración con el programa de*

saihestu nahi da.

*medidas alternativas en el campo de la violencia de género.*

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, eta zehaztu du eskaera hori asmo - adierazpena baino ez dela; izan ere, Zigorrak eta Neurri Alternatiboak Kudeatzeko Zerbitzuak, zigor bakoitza ezartzeko delitua zehaztera behartuta ez dagoenez, eskaera hori bete dezake edo ez.

*Toma la palabra Don Enrique de la Calle, concretando que, esta solicitud no deja de ser una declaración de intenciones, ya que el Servicio de Gestión de Penas y Medidas Alternativas, al no estar obligado a especificar el delito por el que se impone cada pena, puede dar o no cumplimiento a esta solicitud.*

Alkateak erantzun du, eskaera betetzen ez bada, Udalak ahalmena duela puntu honetan aipatzen den programatik osorik erretiratzeko.

*El Alcalde responde que, en caso de no dar cumplimiento a la solicitud, el Ayuntamiento tiene potestad de retirarse íntegramente del programa al que se hace referencia en este punto.*

Afera bozkatuta eta Batzordearen aldeko irizpenarekin **Udalbatzak, bertaratutakoen aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Sometida la propuesta a votación, el Pleno,* ***por unanimidad de los y las concejales presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:***

LEHENENGOA.- Neurri alternatiboen programan ez laguntzea, genero - indarkeriaren arloan.

*PRIMERO.- No colaborar en el programa de medidas alternativas en materia de violencia de género.*

BIGARRENA.- Akordio hau Zigorrak eta Neurri Alternatiboak Kudeatzeko Zerbitzuari helaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo al Servicio de Gestión de Penas y Medidas Alternativas, para su conocimiento y efectos.*

**10.- EH Bilduko udal taldeak martxoaren 8arekin (Emakume Langileen Eguna) aurkeztutako mozioa onartzea, hala badagokio.**

***10.- Aprobación de moción presentada por el Grupo Municipal de EH Bildu, en relación con el día 8 de marzo, Día de las Mujeres Trabajadoras, si procede.***

Alkateak, EH Bilduko Udal Taldearen bozeramale gisa, mozioa erretiratuko dela iragarri du, bere kudeaketari buruzko kontsentsurik lortu ez delako.

*El Alcalde, como portavoz del Grupo Municipal de EH Bildu, anuncia que se retira la moción, por no haber alcanzado un consenso en cuanto a su gestión.*

**11.- URGENTZIAZKO PUNTUA. Betiko emandako nitxoen iraupena 50 urtean ezartzea, hala badagokio.**

Alkateak idazkariari eman dio hitza.

Honek azaltzen duenez, ordenantza fiskalek nitxoen betiko emakidaren iraupenari buruz ezarritakoa eta Irurtzungo Udal Hilerria arautzen duen Ordenantzan ezarritako iraupena ez datoz bat. Bigarren honek ez du betiko nitxoen emakiden gehieneko iraupenik ezartzen, ez baititu horrelako emakidak arautu ere egiten, baina ondoriozta daiteke, Foru Berria aplikatuta, 99 urterako emakidak direla, hori baita, hain zuzen ere, Nafarroan emakiden gehieneko ohiko epea. Aitzitik, ordenantza fiskaletatik, urtero berritzen direnak gainera, Irurtzunen emakiden gehieneko epea 50 urtekoa dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, hau da aplikatzen ari den epea, bestela ez bailuke zentzurik izango hamar urteko luzapenak.

Idazkariak gaineratu du, Udalean aurkeztu zen kasu bat dela - eta, gai honi buruzko txosten juridikoa eman zuela, eta bertaratutako pertsona guztien eskura dagoela. Bertan ondorioztatzen zenez, Irurtzungo Udalaren nahia, legeak egitean, nitxoak betiko emateko epea 50 urtetan ezartzea izan zen.

Ez da hitzartzerik izan eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Betiko emandako nitxoen iraupena 50 urtetan ezartzea.

***11.- PUNTO URGENCIA. Establecimiento de la duración de los nichos concedidos a perpetuidad en 50 años, si procede.***

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria.*

*Esta explica que existe discordancia entre la duración de la concesión a perpetuidad de los nichos establecida por las Ordenanzas fiscales y la Ordenanza reguladora del Cementerio Municipal de Irurtzun. Mientras que de esta segunda, que no establece duración máxima de las concesiones de nichos a perpetuidad, ya que ni siquiera regula este tipo de concesiones, se puede deducir que se trata de concesiones a 99 años por aplicación del Fuero Nuevo, que establece este como plazo máximo habitual de concesiones en Navarra, de las ordenanzas fiscales, que son, además, las que se renuevan anualmente, se deduce que el plazo máximo de concesiones en Irurtzun es de 50 años. Este es, de hecho, el plazo que se viene aplicando, ya que, de otra forma, carecería de sentido la prórroga de diez años prevista en estas.*

*La Secretaria añade que, debido a un supuesto que se presentó en el Ayuntamiento, emitió informe jurídico sobre este tema, que está a disposición de todas las personas presentes. En él, se concluía que la voluntad del Ayuntamiento de Irurtzun al legislar había sido establecer el plazo de las concesiones de nichos a perpetuidad en 50 años.*

*No ha habido toma de palabras y* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Establecer de la duración de los nichos concedidos a perpetuidad en 50 años.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Irurtzungo Udal Hilerria arautzen duen Ordenantzan sartzea.

*SEGUNDO.- Introducir este acuerdo en la Ordenanza reguladora del Cementerio Municipal de Irurtzun.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa argitara ematea.

*TERCERO.- Dar publicidad a este acuerdo.*

**12.- Erregu eta galderak.**

***12.- Ruegos y preguntas.***

Txomin Goñi jaunak inauteriak ospatuko diren galdetu du.

*Don Txomin Goñi pregunta si se celebrarán carnavales.*

Agurtzane Garijo andreak Kultura Kontseiluan hartutako erabakiak azalduz erantzun du: ez da ohiko herri - bazkaririk egingo, osasun - egoera nahikoa fidagarria ez delako, baina ostiralean Orritzeko panpinak aterako dira eta larunbatean desfilerik egon ez arren, txarangak girotuko du, pertsonak ahalik eta sakabanatuen egon daitezen. Antolatutako guztia kalean izango dela azpimarratu du.

*Doña Agurtzane Garijo responde explicando las decisiones adoptadas en el Consejo de Cultura: No se celebrará la habitual comida popular, por no ser la situación sanitaria suficientemente fiable, pero el viernes saldrán los muñecos de Orritz y el sábado amenizará una txaranga, sin desfile, para intentar que las personas estén lo más dispersas posible. Destaca que todo lo organizado se celebrará en la calle.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:57ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:57 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)

Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.03.04 15:34:44 +01'00'

Alkatea / *El Alcalde,*
Aitor Larraza Carrera

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)

Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.03.04 15:34:18 +01'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres